

# IRABAZI ITURRIAK

Irabazi iturriak oso garrantzitsuak dira, enpresarekin aurrera jarraitzeko funtsezkoak direlako. Bi atal nagusietan banatzen ditugu, alde batetik hasierako inbertsioak (materiala, ekipamentua etab.) ondaintzeko diru-iturria. Bestetik, hilabeteroko gastuak (soldatak, mugikor tarifa, Host, aseguruak etab.) ordaintzeko diru-iturriak.

<b>HASIERAKO INBERTSIOAK ORDAINTZEKO DIRU-ITURRIA</b>	
<b>Bakoitzak jarritako dirua</b>	4000 x 5 = 20000€
<b>GUZTIRA:</b>	<b>20000€</b>

Enpresa aurrerantz atera ahal izateko, argi dago beharrezkoa dela diru-iturri bat hasierako inbertsioak ondaintzeko. Gukdiru iturri bakarra dugu, gutariko bakoitzak jarritako diru kopurua. Gutariko bakoitzak 4000€ jarriko ditugunez, guztira 20.000€ edukiko ditugu hasierako inbertsioak ordaintzeko.

<b>HILABETEROKO GASTUAK ORDAINTZEKO</b>	
<b>Donostiako Udala</b>	5000€
<b>Enpresa pribatuak (7)</b>	7000€
<b>GUZTIRA:</b>	<b>12000€</b>

Gure hilabeteko gastuen %41,7, hau da 5000€, Donostiko Udalak lagunduko digu ordaintzen, gizarteari laguntzeko guztiz prest dagoen enpresa bat garelako, gure zerbitzua dohainik eskainiz behar duen edozein pertsona joan ahal izateko oztoporik gabe. Enpresa pribatuen kasuan, hilabetero enpresa pribatuekin dugun kontratua berrituko dugu, enpresa bakoitzeko 1000€ lortu ahal izateko eta hauekin gure hilabeteroko gastuak ordaintzeko, hau da gastuen %58,3.